

Oñatiko EAJ-PNVk 2024ko aurrekontuen “zehaztasun falta” eta udal gobernuaren “malgutasun eza” azpimarratu ditu

- *Udal talde jeltzaleak adierazi du EH Bilduren udal gobernuak orokortasunetik jardun duela, kasu askotan, 2024erako aurreikusitako inbertsioen xedea edo zenbatekoa definitu eta zehaztu gabe utziz.*
- *EAJk salatu du, halaber, 1.5 milioi euroko inbertsioa exekutatu gabe gelditu dela, udal gobernuak kudeatu gabe utzi dituelako 2023 urteko aurrekontuko hainbat eta hainbat diru-lerro eta inbertsio; gainera, ez ditu 2024ko aurrekontuan aurreikusi eta udal gerakinetik finantzatu nahi ditu, martxoan.*

Azaroaren amaieran, EAJ-PNVren Oñatiko Udal Taldeak 8 proposamen aurkeztu zituen Ogasun batzordean 2024rako aurrekontu proiektua hobetzeko, eta orain, horiek udal gobernuarekin partekatu ondoren, EH Bilduren udal-gobernuak emandako erantzunen balorazioa egin du.

Oñatiko EAJ-PNVk azpimarratu du, batetik, 2024ko aurrekontuen ‘zehaztasun falta’ eta, bestetik, udal gobernuak EAJren proposamenak aztertze, aintzat hartze eta akordioetara iristeko agertutako ‘malgutasun falta ikaragarria’. «Oraingoan ere, EH Bilduren udal gobernuak ez ditu aintzat hartu jeltzaleok oñatiarren bizitza hobetze aldera egindako proposamenak, eta 8 emendakinetatik bat baino ez dute sartu 2024ko aurrekontu-dokumentuan; ez dute erakutsi inolako malgutasunik gainerako (7) emendakinak aurrekontuan txertatzeko», azaldu du udal talde jeltzaleak.

Horren harira, jeltzaleek nabarmendu dute udal gobernuak orokortasunetik jardun duela: «aurrekontu proiektuan jaso diren diru-lerro asko oso-oso orokorrak dira, eta ez dute zehazten zertara bideratuko den dirua. Horren adibide dira honakoak diru-partidak: irisgarritasun- eta asfaltatze lanak, energia-jasangarritasunerako inbertsioak, jolasguneetako obrak, auzoetako inbertsioak, turismo-ekintzen gastuak... Zeintzuk dira, ordea, irisgarritasun-proiektu horiek? Zer egingo da? Zein kale, plaza edota eremu asfaltatuko dira? Zeintzuk egingo dira irisgarriago? Zein auzotan esku-hartuko da? Kasu horietan guztietan udal gobernuak orokortasunean gelditu da.

Bestalde, EAJ-PNVren udal taldeak exekutatu gabe gelditu diren 1.5 milioi euroko inbertsioetan jarri du fokua. «Eta hori gutxi balitz, exekutatu gabe gelditu diren inbertsio horiek, ez dute inolako partidarik aurreikusita 2024. urterako. Diru-lerro horien artean, dago, esaterako, herriarentzat zein herritarrentzat hain premiazkoa diren Musika Eskolaren gaia, Kasko Historikoa Eraberritzen Plan Berezia, Azokagunea eraberritzeko proiektua eta Olakuako potzurako exekuzio-proiektua», esan dute jeltzaleek.

«Ogasun batzordeburuak, emailaz, azaroaren amaieran adierazi zigunez, datorren urteko martxoan, 2023an exekutatu ez diren eta aipatu berri ditugun hainbat inbertsio aurrekontuari txertatzea aurreikusten du EH Bilduren udal gobernuak, urteko likidazioa egindakoan. Beraz, txertaketa potentzial maila oso-oso altua da; hau da, udal gobernuak aurten exekutatu ez dituen proiektuak udal gerakinetik finantzatzeko ditu datorren urtean. Jokaera horrek hauxe dakar: martxoko balizko txertaketa-mailarekin,

abenduaren 14ko Osoko Bilkuran onartuko den aurrekontua eta martxoko Osoko Bilkuran onartuko dena oso desberdinak izango dira. Gure iritzian, aurrekontu-dinamika hori ez da egokia, inondik ere. Zehaztasun ezaren isla argia da», amaitu dute.

EAJ-PNV de Oñati destaca la "falta de precisión" de los presupuestos de 2024 y la "inflexibilidad" del gobierno municipal

- *El grupo municipal jeltzale señala que el gobierno municipal de EH Bildu ha actuado de forma generalista, dejando sin definir ni concretar, en muchos casos, el destino o cuantía de las inversiones previstas para 2024.*
- *Asimismo, también denuncia que hay una inversión de 1.5 millones que no ha sido ejecutada porque el gobierno local no ha gestionado muchas de las inversiones y partidas del presupuesto de 2023; además, dichas inversiones no están previstas en el presupuesto de 2024 y el equipo de gobierno quiere financiarlas del remanente municipal, en marzo.*

A finales de noviembre, el Grupo Municipal de EAJ-PNV de Oñati presentó en la Comisión de Hacienda 8 propuestas para mejorar el proyecto de presupuestos para 2024 y, tras compartirlas con el gobierno municipal, ha realizado una valoración de las respuestas recibidas por parte del equipo de gobierno de EH Bildu.

Por una parte, EAJ-PNV de Oñati destaca la 'falta de concreción' de los presupuestos de 2024 y por otra, también alude a la gran 'falta de flexibilidad' del gobierno municipal para analizar o tomar en consideración sus propuestas, así como para llegar a acuerdos. «Una vez más, el gobierno municipal de EH Bildu no ha tomado en consideración nuestras propuestas para mejorar la vida de los oñatiarras y, aunque bien es cierto que ha aceptado una de las 8 enmiendas, no han mostrado ninguna flexibilidad para incluir el resto de las 7 en el documento presupuestario de 2024», ha explicado el grupo municipal jeltzale.

En la misma línea, EAJ-PNV de Oñati ha señalado que el gobierno municipal de EH Bildu ha actuado de forma generalista: «muchas de las líneas recogidas en el proyecto de presupuestos son muy generales y no especifican a qué se destinará el dinero. Como ejemplos tenemos partidas como obras de accesibilidad o asfaltado, inversiones para la sostenibilidad energética, obras de parques infantiles, inversiones en barrios, gastos de actividades turísticas... Sin embargo, ¿cuáles son esos proyectos de accesibilidad? ¿Qué se va a hacer? ¿Qué calles, plazas o zonas se van a asfaltar? ¿Cuáles se harán más accesibles? ¿En qué barrios se va a intervenir? En todos estos casos, el equipo de gobierno se ha quedado en términos generales».

Por otra parte, EAJ-PNV ha puesto el foco en el millón y medio de euros en inversiones que no han sido ejecutadas. «Y si esto fuera poco, todas esas inversiones que no ha ejecutado el gobierno local no tienen ninguna partida prevista para el 2024. Y entre esas inversiones se encuentran, por ejemplo, la destinada a Escuela de Música, algo muy demandado por el municipio y las y los oñatiarras, el Plan Especial para la renovación del Casco Histórico, el proyecto de renovación de la feria o el proyecto de ejecución de Olakua», han señalado.

«Según nos informó el Presidente de la Comisión de Hacienda a finales de noviembre, está previsto que en marzo se incluyan las inversiones recientemente mencionadas y el resto de las no ejecutadas en 2023, una vez cerrada la liquidación del año. Por tanto el valor de estas incorporaciones será muy alto; es decir, el año que viene, el gobierno municipal va a financiar del remanente municipal las inversiones que no ha ejecutado en 2023. Eso implica que, con el valor de las posibles incorporaciones de marzo, el presupuesto que hemos aprobado en el pleno de ayer, 14 de diciembre y el que se aprobará en el pleno de marzo



serán muy diferentes. En nuestra opinión, esta dinámica presupuestaria no es la adecuada, de ninguna manera. Es un claro reflejo de la falta de concreción y precisión», concluyen.